

ZUMAIAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN ALDAKETA

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Zumaiaiko lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

- 1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:
 - **Zumaiaiko Hiri Antolaketako Arauen Berrikuspena (2004ko otsailaren 17an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartua).**

ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Hiri-lurraren eta 104, 112, 113, 202, 230, 301, 311, 312, 314, 315, 319, 601, 603, 801, 803, 805, 806, 853 eta 854 zona katastralen mugapenak aldatzen dira, 604 eta 807 zona katastral berriak sortzen dira, eta 802, 852 eta 855 zona katastralak deusestatzen dira.

2.- Sortutako zonak honako balioak izango ditu:

Zona Hirigintz. klasif (EK)Eraik Kos. (BEE)Balio Erag. (MP)Apark Moduloa.

604	HIRITARGARRIA	510,86 €	410,71 €	10.818,22 €
------------	----------------------	-----------------	-----------------	--------------------

Zona Hirigintz. klasif (BEE)Balio Erag. (MP)Apark Moduloa.

807	HIRITARRA	180,30 €	6.611,13 €
------------	------------------	-----------------	-------------------

3.- 604 etxebizitzarako zonan dauden kaleek edo kale tarteeek T azpizona izango dute.

I. ERANSKINA

Hirilurraren mugatze plano.

II. ERANSKINA

Zona katastralen plano.